

Enplegua sektoreka eta tamaina desberdineko enpresetan EAeko industrian

(Employment by sectors and by different-sized companies
in industry of the Basque Autonomous Community)

Aranguren Querejeta, M. Jose
Deustuko Unib.
ESTE- Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fak.
Ekonomi Saila
Mundaiz 50
20012 Donostia
mjarang@ud-ss.deusto.es

BIBLID [1136-6834 (2000), 30; 497-514]

Lan honetan Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian manufaktura industriako enpleguak beste herrialdeekin alderatuz duen garrantzia aztertu ondoren, enplegu hau sektore eta tamaina desberdineko enpresetan nola banatzen den aztertzen da. Azterketa hau 1985 eta 1995 urte bitarterako egiten da.

Giltz-Hitzak: Industria. Enplegua. Enpresen tamaina.

En el presente trabajo, tras analizar la importancia que en la economía de la Comunidad Autónoma Vasca tiene el empleo de la industria manufacturera comparándolo con el de otros países, se examina la distribución del empleo en empresas de distintos sectores y tamaños. Este trabajo se realizó entre 1985 y 1995.

Palabras Clave: Industria. Empleo. Tamaño de las empresas.

Dans ce travail, après avoir analysé l'importance de l'emploi de l'industrie manufacturière dans l'économie de la Communauté Autonome Basque comparé à celui d'autres pays, on examine la distribution de l'emploi dans des entreprises de différents secteurs et de grandeur différente. Ce travail fut réalisé entre 1985 et 1995.

Mots Clés: Industrie. Emploi. Grandeur des entreprises.

0. SARRERA¹

Industri sektorea hiru jarduera desberdinek osatzen dute: energi sektorea, ateratze industriak eta manufakturako industriak. Lehen bi sektoreek Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE aurrerantzean) duten pisu ahula, dituzten ezaugarri bereziak eta bi sektore horiei buruzko datuak eskuratzeko arazoak kontuan izanik, industri sektorea aztertzean, batez ere, manufakturako industriaren azterketaz arituko gara.

Askotan entzun dugu industria ekonomiaren motorra dela, edo beste era batera esanda, ekonomia baten hazkunderako eta lehiakortasunerako oso garrantzitsua dela ekonomia horretan industri sektore garatua izatea. Zertan oinarritzen da baieztapen hori?

Buesa eta Molerok (1998) dioten bezala, industriak sistema ekonomikoaren zabalkunderako oso esanguratsuak diren hainbat funtzio betetzen ditu. Autore horien esanetan:

- Industria da teknologi aurrerapenak xurgatzeko ahalmen handiena duen sektorea. Industri sektorean dago produktiorako teknologiak garatzen dituzten agenteen gune nagusia, batez ere sektore batetik bestera eramangarri diren teknologiak garatzen dituztenena. Beraz, produktiorako teknologiak industri sektoretik hedatzen dira beste segmentuetara.
- Gainera, industri sektorea da ekoizpen-prozesuetan eta horiei dagozkien produktuetan berrikuntzak sartzeko ahalmen handiena duen sektorea. Horrek ekoizgarritasuna sektore honetan besteetan baino modu jarraituagoan eta gehiago haztea dakar.
- Azkenik, input-output taulen azterketek adierazten dutenez, industri sektorea da erosalde eta saltzaile gisa ekonomia osoarekiko gainerako sektoreek baino arrastre-efektu handiagoa duena, eta horren ondorioz, ekonomi hazkundera gehien bultzatzen duena.

Navarro eta besteen (1994) lanean herrialde batek industri sektore sendo bat izatearen komenigarritasuna bermatzeko beste hainbat arrazoi adierazten ditugu:

- Industriako batez besteko enplegu bat beste sektoreetako batez besteko enplegu bat baino hobea da, ez bakarrik kualifikazio eta teknologi maila altuagoa duelako, baizik baita enplegu hori duenari ordainsari altuagoa ematen diolako ere, eta horren ondorioz, biztanleriak errenta eta ongizate altuagoa izatea dakarrelako.
- Lehiakortasuna herrialde batek nazioarteko merkatuetan merkatu-kuotari eusteko eta hazteko duen gaitasuna dela, eta nazioarteko merkataritza gehiena manufakturako industriako produktuei dagokiela onartzen badugu, herrialde baten nazioarteko lehiakortasuna, batez ere, bere manufakturako industriari dagokiona da.

Beraz, laburtuz, autore desberdinek industriaren garapenaren garrantziaz hitz egitean, industriak berrikuntzan duen protagonismoa, beste sektoreekiko dituen arrastre-efektuak, industriako enpleguek batez bestean duten kualifikazio eta ordainsari altuagoa -horrek ongizatean duen eragin positiboarekin- eta herrialde baten lehiakortasunerako duen pisua azpimarratzen dituzte.

EAEko industri sektorearen azterketa egin aurretik, 1 atalean sektore honek EAEko ekonomian beste ekonomi garatuekin alderatuz zenbateko pisua duen ikusiko dugu. Ondorengo ataletan industri sektoreko enpleguaren azterketan sakontzen saiatuko gara. Horrela, 2

1. Itziar Navarriori eskertzen dizkiot euskarari dagokionez eginko gomendio baliagarriak.

eta 3 ataletan industriako zein sektore eta zein tamainatako enpresak diren enplegu gehien dutenak ikusiko dugu. Eta gero, 4 eta 5 ataletan, manufakturako industriako sektore desberdinetan eta tamaina desberdineko enpresetan enpleguak izan duen bilakaera aztertuko dugu.

Azterketa hori egiteko erabili ditugun iturri estatistikoei dagokienez, EAEko datuak Eustaten Kontu Ekonomiko eta Industri Kontuetatik atera ditugu. Gainerako herrialdeetako datuak, berriz, Eurostat (Espainia eta Europa-15erako) eta Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Elkartearen-ELGE- (EEBB eta Japoniarako) Kontu Ekonomikoetakoak dira.

1. INDUSTRIAREN PISUA EKONOMIAN

Manufakturako industriaren azterketari ekin aurretik, sektore horrek herrialde desberdinetako ekonomian duen pisua aztertuko dugu.

Industriak ekonomian duen pisua handiagoa da Gipuzkoan eta EAEn, bai balio erantsi gordinari eta bai enpleguari dagokienez, alderapenean kontuan izan ditugun beste herrialdeetan baino. Gainerako herrialdeetan, Japonian du industriak pisu handiena eta EEBBtan pisu txikiena (1 koadroa).

Azpirarragarria da Gipuzkoan, EAEn eta Japonian industriak duen pisua altuagoa dela balio erantsi gordinari (BEG) begiratuta, enpleguari begiratuta baino. Hemendik herrialde horietan industri sektoreak beste sektoreek baino ekoizgarritasun altuagoa duela ondoriozta dezakegu. Gainerako herrialdeetan, aldiz, hots Espainian, Europa-15ean eta EEBBtan, ez da hori gertatzen, lehen bietan industriak BEGri eta enpleguari dagokionez pisu berdina baitu eta EEBBn kasuan, berriz, BEGri begiratuta enpleguari begiratuta baino pisu ahulagoa du. Beraz, EEBBn kasuan industriak beste sektoreek baino ekoizgarritasun ahulagoa du.

Dena den, herrialde batean industriak duen ahalmena neurtzeko ez da nahikoa ekonomia osoan sektore horrek duen pisua aztertzea, baizik eta komenigarria da azterketa hori industri sektoreak biztanleko sortzen duen balio erantsiaren azterketarekin osatzea. Hori da 2 koadroan jasotzen den aldagaia. Koadro horrek azaltzen digunez, aztertu ditugun herrialde guztietan industriak, bai enplegua eta bai BEG irizpide hartuta, EEBBn izan arren pisurik ahulena, EEBBn egoera ez da hain ahula industri sektoreak biztanleko sortzen duen BEGri so egiten badiogu. Hain zuzen ere, industriak biztanleko sortzen duen balio erantsiaren arabera, EEBBa Espainia, Europa eta EAEn aurretik kokatuko litzateke.

2. MANUFATURAKO INDUSTRIAKO ENPLEGUA SEKTOREKA

Manufakturako industriako enplegua sektore desberdinetan 1997an nola banatzen den 3 koadroan ikus dezakegu. Koadro horretan ikusten den bezala, EAEko manufakturako industriaren enpleguaren gehiengo Metalezko eraldakuntzako sektoreetan aurkitzen da. Metalezko eraldakuntzako bost sektore-talde nagusi hartzen baditugu, hots, Metalezko eraikuntzak (%13,6), Metalezko artikulak (%14,4), Makineria (%11,5), Material elektrikoa (%9,6) eta Garraio Materiala (%9), bost sektore-talde horietan manufakturako enplegu osoaren %58a kontzentratzen dela ohartu gintezke. Gainera, Metalezko eraldakuntzetako sektore desberdinen artean Metalezko artikulak (%14,4), Bestelako makineria (%8,5), Bestelako material elektrikoa (%6,8) eta Metalezko eraikuntza (%6) aipagarriak dira enpleguan duten pisuagatik, lauren artean manufakturako enpleguaren %35,7 hartzen baitute. Azkenik, aipatzekoa da Metalen eraldakuntzatik kanpo gelditzen den sektore bat: Siderurgia, hain zuzen ere. Siderurgiak

EAEko manufakturako enpleguan, jasan dituen berregituraketa guztiak jasan ondoren, oraindik ere pisu garrantzitsua du (enpleguaren %5,6).

Manufakturako industriako sektore desberdinek manufakturako enpleguan duten pisuari dagokionez izan duten bilakaerari so egiten badiogu, 3 koadroaren irakurketatik datozen ondorioak atera ditzakegu:

- Siderurgiak gaur egun enpleguari begiratuta duen pisua 1985. urtean zuenaren erdia baino txikiagoa da, beraz, Siderurgian gertatu diren teknologi aurrerapenek eta EAEko enpresentzat lehia areagotzeak behartu zituen berregituraketek izugarritzko enplegu-galera ekarri dute gure ekonomiarentzat. Horrek esplikatzeko du Metalezko Oinarrizkoek enpleguan zuten pisuan jasan duten galera.
- Metalezko artikulua, Metalezko eraikuntzak eta Forjaketa eta estanzazioak pisua irabazi dute eta Galdategiak galdu.
- Material elektrikoak pisua irabazi du, nahiz eta Etxetresna elektrikoek pisu-aldaketa nabarmenik ez izan, Bestelako material elektrikoaren sektoreak pisua irabazi du.
- Garraio materialak, aldi osoari so eginez gero, enpleguan pisua irabazi du. Dena den, sektore horren kasuan aldi desberdinak bereizi beharko genituzke. Lehen fasean, 1985etik 1990era Ontzigitzaren berregituraketaren ondorioz galdutako enpleguengatik pisua galtzen du. Bigarren fasean, 1990etik aurrera, Automobilak eta piezak sektoreak bizi duten enplegu-irabaztea Ontzigitzak duen enplegu-galeraren gainetik dagoenez, Garraio materialen sektoreak pisu-irabazte nabarmena bizi du.
- Egurra eta Altzariak ere pisua irabazi dute, batez ere 1990. urtetik aurrera Zurezko altzarietan sortzen den enplegu-kopuruarengatik.
- Papera eta Arte grafikoetan ez da aldaketa nabarmenik gertatu, Paperak pairatzen duen enplegu-galera Arte grafikoetan ikusten den pisu-irabaztearekin berdintzen delako. Era berean, Kautxu eta pneumatikoetako taldean ez da pisu-aldaketa nabarmenik ageri, Kautxu eta pneumatikoaren sektoreak berak pisua galtzen duen arren, Plastikozko artikuluen eta Bestelako manufakturen sektoreek pisua irabazten dutelako.
- Ez-Metalezko Industria, Kimika, Makineria, Janari-Industriak eta Ehungintza eta Jantzigintzak ez dute aldaketa nabarmenik izan enpleguan duten pisuan.

3. MANUFATURAKO INDUSTRIAKO ENPLEGUA ESTABLEZIMENDUEN TAMAINAREN ARABERA

Manufakturako industriako enplegua establezimenduen tamainaren arabera nola banatzen den aztertzeko, azterketa-unitate bezala establezimendua erabiliko dugu. Nolanahi ere, horrek enpresa azterketa-unitate bezala erabiltzen duten ikerketekin alderatzeko ez du inongo arazorik sortzen. Aranguren (1997) lanean ikus daitekeen bezala, EAEn enpresen %3 berterik ez dira establezimendu bat baino gehiago duten enpresak.

Bestalde, tamainari loturik egiten diren ikerketetan ohikoa denez, enpresa txikiak 100 enplegatutik beherakoak izango dira, ertainak 100 eta 499 enplegatu artean dituztenak eta handiak 499 enplegatu baino gehiago dituztenak. Gainera, enpresa txikien artean, 10 enplegatu baino gutxiago dituztenei mikroenpresak deituko diegu.

Establezimenduen eta enpleguaren kopurua tamainaren arabera nola banatzen den 4 koadroan ikus daiteke. Establezimenduei dagokienez, 1995ean, bai EAEn eta bai Gipuzkoan,

establezimenduen %97ak 100 enplegatu baino gutxiago dituzte. Gainera, horien artean gehienak, %86 inguru, 20 enplegatu baino gutxiago dituztenak dira. Beraz, ondorio gisa EAEko manufakturarako industria establezimendu txikiz osatua dagoela esan dezakegu.

Enpleguari erreparatuz establezimendu txikiek duten pisua nabarmenki ahulagoa izan arren, aldagai honi dagokionez ere establezimendu txikiek garrantzi handia dute EAEko manufakturarako industriari. Establezimendu ertain eta handietan dagoen enplegua manufakturarako industriako enpleguaren %33 eta %17 da hurrenez hurren, eta txikietan dagoena, aldiz, %50.

Enplegatuen kopurua establezimenduen kopuruarekin zatituz, batez bestean establezimendu bakoitzean zenbat enplegatu dauden jakin dezakegu. EAEko eta Gipuzkoako manufakturarako industrien kasuan, kopuru hori 16 enplegatukoa da.

Aldera dezagun EAEn edo Gipuzkoan manufakturarako establezimenduak eta enpleguak tamainaren arabera duten banaketa Europa, Espainia edo Madril eta Katalunia bezalako erki-degoekin. Navarro et al. (1994) eta Aranguren (1998a) aurreko ikerketek ondorioztatzen dutenez, bai establezimenduei eta bai enpleguari dagokionez, establezimendu txikien pisua txikiagoa da eta ertain eta handiena handiagoa EAEn Espainia, Madril eta Katalunian baino. Europarekin alderatuz, aldiz, EAEko establezimendu txikien pisua txikiagoa da eta ertain eta handiena handiagoa establezimendu kopuruari dagokionez, baina alderantziz gertatzen da enpleguari begiraturaz gero. Hori, batez ere Europako establezimendu handien batez besteko tamaina EAEkoena baino askoz handiagoa delako (ia bikoitza) gertatzen da.

EAEko manufakturarako industriako enpleguaren banaketak tamainaren arabera beste herrialdeetakoekin dituen desberdintasunen arrazoiei buruz, Navarro et al. (1994) eta Aranguren (1998b) lanean honakoa ondorioztatzen da:

- EAEn establezimendu handietan dagoen enpleguak pisu handiagoa du Espainian, Katalunian eta Madrilan baino, EAEko manufakturarako industria establezimendu handiak ugariagoak diren sektoreetan espezializatua dagoelako. EAEko manufakturarako industriari Espainia, Madril edo Kataluniakoaren sektore-egitura berdina izango balu, hemen enpresa txikietan enplegu gehiago kontzentratuko litzateke.
- European establezimendu handietan dagoen enpleguak EAEn baino pisu gehiago du, ez Europa EAerekiko establezimendu handiak ugariagoak diren sektoreetan espezializatua dagoelako, baizik eta, sektore desberdinetan establezimendu handiak European ugariagoak direlako.

Urte batean establezimendu eta enplegatu kopuruak tamainaren arabera duen banaketari so egin beharrean, banaketa horrek 1985etik 1995erako hamarkadan izan duen aldaketari² so egiten badiogu, EAEn urte horietan manufakturarako industriari 72.777 lanpostu galtzen dituela ikus dezakegu, baina galera hori ez da modu homogoneoan banatzen tamaina desberdineko establezimenduen artean. Horrela, establezimendu txikietan, batez era mikroestablezimenduetan, enplegua handitzen da eta establezimendu ertain eta handietan, aldiz, lanpostuak galtzen dira. Bilakaera horren ondorioz, establezimendu txikiak 1985ean manufakturarako industriako enpleguaren %36a izatetik 1995ean enplegu horren %50a izatera pasatzen dira. Azpimarragarria da, batez ere, establezimendu handiek jasaten duten pisu-galera en-

2. Aldaketa hori aztertzean 1990. urteko Eustaten direktorioaren hobekuntzaren eragina isolatzen da, zeren eta bestela, mikroestablezimenduen pisu-irabaztea gainbaloratua egongo bailitzateke.

pleguari dagokionez, 1985ean enpleguaren %32a izatetik 1995ean %17a izatera pasatzen baitira.

Azkenik, establezimendu eta enplegatu kopuruek izan duten bilakaera konbinatuaren ondorioz establezimendu bakoitzean batez bestean dagoen enplegatu-kopuruak beherakada nabarmena jasan du. Horrela, 1985ean establezimendu bakoitzean batez bestean 36 enplegatu egotetik, 1995ean 16 enplegatu egotera pasa dira.

Mikroestablezimenduetan dagoen enpleguaren pisu-igotzea eta establezimendu handietan dagoenaren pisu-galtzea ondorengo arrazoiengatik gerta daiteke:

- Manufakturako industriako sektoreen konposizioa aldatzeagatik, hau da, establezimendu txikiak ugariagoak diren sektoreek pisua irabazteagatik (konposizio-efektua).
- Manufakturako sektore desberdinetan establezimendu txikietan dagoen enpleguak pisua irabazteagatik (sektorebarneko efektua).
- Aurreko bi fenomenoek eragin bateratuagatik (elkarrekintzako efektua).

Shift-share³ analisiak establezimendu txikietan dagoen enpleguaren pisu-irabaztean fenomeno horietako bakoitzak izan duen eragina neurtzen du. Navarro, M. eta Aranguren, M. J. (1998) ikerketan azterketa hori burutzen da eta bertan mikroestablezimenduetako enpleguaren pisu-irabaztea eta establezimendu handietako enpleguaren pisu-galtzea sektorebarneko efektuagatik gertatzen dela ondorioztatzen da, hau da, sektore desberdinetan mikroestablezimenduetan dagoen enpleguak pisua irabazteagatik.

Mikroestablezimenduetan gertatzen den enplegu-irabaztearen arrazoietan gehiago sakonduz, hazkunde hori sortzen diren tamaina honetako establezimenduen kopurua ixten direnena baino handiagoa izateagatik (sarrera eta irteera berriak), edo operatibo dauden establezimenduetan gertatzen den enpleguaren aldaketagatik (transferentziagatik irteera eta sarrerak) gerta daiteke⁴. Navarro, M. eta Aranguren, M. J. (1998) ikerketan azterketa hori ere burutzen da eta bertan, mikroestablezimenduetako enpleguaren pisu-irabaztea sarrera eta irteera berriengatik, hau da, irekitzen diren mikroestablezimendu berriek sortzen dituzten lanpostuak, ixten direnek galtzen dituztenak baino gehiago izateagatik gertatu dela ondorioztatzen da. Establezimendu handietako enpleguaren pisu-galtzea, aldiz, establezimendu horiek tamaina txikitzean jasaten duten enplegu-galeraren ondorioz, establezimendu ertainak edo txikiak izatera pasatzeagatik gertatu da.

Beste herrialdeetan gertatu dena aztertuz, Navarro et al. (1994) lanean esaten den bezala, establezimendu-kopuruak eta enpleguak tamaina txikieneko tarteetan kontzentratzeko azaltzen duten joera herrialde industrializatu gehienetan ari da gertatzen, nahiz eta herrialde batzuetatik besteetara fenomeno horrek intentsitate desberdina agertu. Aranguren (1998) lanean azaltzen den bezala, intentsitatea EAEko industriaren kasuan beste herrialdeetan baino nabarmenagoa izan da.

Fenomeno hori esplikatzeko saiaterik diren ikerketen artean bi lan-ildo bereiz ditzakegu. Alde batetik, eskaintzari loturik, teknologian gertatu den aldaketaren garrantzia azpimarratzen dutenak izango ditugu. Eta bestetik, eskariari loturik, ekonomiaren globalizazioaren garrantzia azpimarratzen dutenak egongo dira.

3. Análisis horren adierazpen formalak Aranguren (1998b) lanean ikus daitezke.

4. Bi eragin horiek aztertzeko adierazpen formalak Aranguren (1998b)-n ikus daitezke.

Teknologi aldaketaren garrantzia azpimarratzen dutenek, masako produkzio-sistematik produkzio-sistema malguetarako joerak eskala-ekonomien garrantzia ahultzea eragin duela diote. Horren ondorioz, establezimendu txikiek handiekiko lehen zuten desabantailetakoa baten pisua galdu egin da, eta beraz, oraingo teknologia berriekin enpresa txikiak handiak bezain lehiakorrak izateko erraztasun gehiago dituzte.

Ekonomiaren globalizazioaren garrantzia azpimarratzen dutenek, globalizazio horrek eskariaren kopuruan eta ezaugarrietan aldaketa nagusiak ekarri dituela diote. Alde batetik, eskariaren kopurua aldakorragoa da munduko merkatuetan enpresek aurkitzen duten lehiagatik. Bestalde, globalizazioaren eraginez, bezeroaren gustu eta nahietara gero eta hobeto egokitzen diren produktu eta zerbitzuak eskatzen dira. Eskariaren bi aldaketa horiek enpresaren malgutasuna nahitaezko bihurtzen dute, baldin eta lehiakorra izan nahi badu. Mills, D. E. eta Schumann, L. (1985)-k ondorioztatzen dutenez, enpresa batean egitura finkoak pisu txikiagoa badu, eskariaren kopuruaren aldaketetarako malgutasun handiagoa izango du enpresak, eta egitura finko ahulagoa duten horiek enpresa txikiak dira (hain zuzen ere, azken urteetan enpresa handi askok produkzioaren zati bat azpikontratatzera jo dute, malgutasun horren bila). Eskariaren ezaugarrietara egokitzeko bezeroa ezagutu eta berarengandik gertu egotea ezinbestekoa da, eta gertutasun hori ere enpresa txikietan errazago egiten da.

Beraz, bai teknologi aldaketak, eta bai globalizazioak establezimenduen eta enpleguaren banaketari dagokionez, enpresa txikietarako kontzentziora garamatzala dirudi.

4. MANUFATURAKO INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA SEKTOREKA

Manufakturako industriak, osotasunean harturik, 1985etik 1997ra bitartean 33.395 enplegu galdu ditu, hau da, 1985. urtean zituen enpleguen %15 inguru. Dena den, 5. koadroan ikusten den bezala, manufakturako industriako enpleguak ez du urtero bilakaera berdina izan: enplegu-galera 1985-1988 eta 1991-1994 aldietan gertatzen da, bi aldi horietan ekonomi krisia gertatzen baita; enplegu-irabaztea, aldiz, 1989-90⁵ aldian eta 1994. urteaz geroztik ageri zaigu, urte horietan ekonomi zikloa susperraldian aurkitzen baita. Azpimarragarria da EAEko manufakturako industriarentzat urterik txarrenak 1992 eta 1993 urteak izan zirela, urte horietan galtzen baitu gure industriak enplegu gehien.

Manufakturako industriako enpleguaren bilakaera horrek sektore desberdinetan dituen berezitasunak aztertzeko 6 eta 7 koadroak erabiliko ditugu. 1985etik 1997rako aldi osoa kontuan hartuz, 6 koadroaren irakurketak ondorio hauetara garamatza:

- Urte hauetan enplegu gehien galdu duten sektoreak Siderurgia (16.000 enplegu inguru), Galdategiak (3.900 enplegu inguru), Kautxua eta pneumatikoak eta Ontzīgintza (3.750 enplegu inguru bakoitza), Metalezko artikulua (3.260 enplegu inguru), Bestelako makineria (2.920 enplegu inguru), Kimika industrialak (2.280 enplegu), Papera (2.000 enplegu inguru), Makina-tresnak (1.800 enplegu inguru) eta Ehungintza (1.200 enplegu inguru) izan dira. 10 sektore horietan 1985-97 aldian ia 41.000 enplegu galdu dira.
- Urte horietan enplegu gehien sortu duten sektoreak Metalezko eraikuntza (4.030 enplegu inguru), Automobilak eta piezak (2.730 enplegu inguru), Zurezko altzariak (2.510

5. 1990. urtean ageri den enpleguaren berreskuratzea neurri batean Eustaten direktorioan egiten den hobekuntzagalik gertatzen da. Beraz, hobekuntza horren eragin kenduz gero, 1985-97 aldian manufakturako industrian gertatutako enplegu-galera oraindik handiagoa izango zen.

enplegu inguru), Bestelako material elektrikoa (985 enplegu), Arte grafikoak (880 enplegu inguru) eta Egurra (750 enplegu inguru) izan dira.

Aldi osoari orokorrean so egin beharrean, aldi horretan gertatzen den urtez urteko bila-kaera aztertuz, 7 koadrotik ondorio hauek azpimarra daitezke:

– Aldi honetan enplegurik gehien galdu duen sektoreak, hau da Siderurgiak, urte guztietan galdu du enplegua. Siderurgiaz kanpo, enplegu gehien galdu duten hurrengo hiru sektoreek, hots, Galdategiak, Kautxua eta pneumatikoak eta Ontzigitzak ere, urteren batean izan ezik, urtero galdu dute enplegua.

Beraz, lau sektore horietan zikloak enpleguaren galeran bortitzago eragiten badu ere, ziklo ekonomikoaz kanpo sektore horietako egiturazko aldaketen eragina nabari da, urtero enplegua galtzen baitute salbuespenak salbuespen.

– Siderurgiaren atzetik enplegu gehien galtzen duten ondorengo bi sektoreek, Metalezko artikulua eta Bestelako makineriak alegia, ez dute urtero enplegua galtzen aurrekoek bezala, baizik eta portaera ziklikoa azaltzen dute. Ekonomiaren hazkundealdietan enplegua irabazten dute eta ekonomiaren beheraldietan enplegua galdu, nahiz eta hazkundealdietako irabazia beheraldietako galera baino baxuagoa izateagatik, azkenean 1985-97ko aldi osoan enplegua galtzen duten.

– Kimika industrialak ere enplegu asko galtzen ditu. Horrek ere, aurreko biek bezala, portaera ziklikoa azaltzen duen arren, azken urteetan, nahiz eta ekonomia hazkundealdian egon, enplegu-galera azaltzen digu.

– Paperak ere enplegu asko galdu du. Sektore horretan enplegu-galera 1993an eteten da, eta ordudanik enplegua sortzen da.

– Azkenik, enplegu dexente galdu duen beste sektoreak, Makina-tresnak alegia, ez du portaera zikliko garbi bat azaltzen. Enplegua galdu du 1988, 1990, 1991, 1992 eta 1994an eta irabazi gainerako urteetan. Galdu duen urteetan galtzen duena irabazten duenetan irabazten duen enpleguaren gainetik egoteagatik, aldi osoari begiratu enplegua galtzen du.

– Enplegua irabazi duten sektoreei begiratu, gehien irabazten duenak, hau da Metalezko eraikuntzak, portaera ziklikoa du eta hazkundealdietan sortzen duen enplegua beheraldietan galtzen duena baino gehiago izateagatik, aldi osoan enplegua irabazten du.

– Automobilak eta piezak eta Zurezko altzariak dira, Metalezko eraikuntzen atzetik, enplegu gehien irabazten duten beste bi sektoreak. Bi sektore horien kasuan, enplegu-irabaztea 1993. urtetik aurrera gertatzen da batez ere, nahiz eta Zurezko altzarien sektoreak 80ko hamarkada amaierako hazkundealdian ere enplegua irabazi.

– Bestelako material elektrikoaren sektorea da aldi honetan enplegu gehien sortzen dutenen artean hurrengoa. Sektore horren kasuan, 1989tik 1993ra bitartean enplegua galtzen da, baina gainerako urte guztietan enplegua sortu.

– Azkenik, enplegua sortzen dutenen artean azpimarratu duguna Arte grafikoena izan da. Sektore horren enpleguaren bilakaeraren kasuan ez da joera garbirik ageri. Urte batzuetan enplegua sortzen da eta beste batzuetan galdu, baina portaera ez dago zikloari lotua.

5. MANUFATURAKO INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA ESTABLEZIMENDUEN TAMAINAREN ARABERA

Hirugarren atalean manufaturako industriako enpleguan establezimendu txikiak duten pisuak gora egin duela eta establezimendu handi eta ertainetan dagoen enpleguaren pisuak, aldiz, behera egin duela ikusi dugu. Dena den, aldi osoa batera aztertu dugunez, ez dakigu fenomeno hori urtero gertatu den ala ez. Hori da, hain zuzen ere, atal honetan aztertzen saiatuko garena.

Horretarako, 8 koadroan tamaina bakoitzeko establezimenduen enpleguari begiratuta, urteko enplegu-aldaketaren tasak azaltzen dira. Koadro horretatik ondoriozta daitekeenez:

- Establezimendu handiek 1985etik 1995era bitartean urtero enplegua galtzen dute. Dena den, establezimendu horietan enplegu-galerarik handiena 1985, 1986, 1991 eta 1992an gertatzen da, hau da, EAEko ekonomia krisian dagoen urteetan.
- Establezimendu ertainetan ere, aldi horretan, urtero enplegua galtzen da 1994an izan ezik, eta urte horretan establezimendu ertainetan enplegua gehitzearen arrazoia establezimendu handiak enplegua murrizteagatik ertain izatera pasatzea izan da.
- Hogei enplegu baino gehiagoko eta 100 enplegu baino gutxiagoko establezimenduetan ia urtero enplegua galtzen da, 80ko hamarkadaren bigarren zatiko hazkundealdiko urteren batean izan ezik.
- Azkenik, 20 enplegu baino gutxiagoko establezimenduetan ia urtero enplegua handitzen da, 1992 eta 1993an izan ezik, bi urte horietan gure ekonomiak krisialdi oso latza jasan baitzuen.

BIBLIOGRAFIA

- ARANGUREN, M. J. (1997): "Los sesgos derivados de la utilización del establecimiento y de la empresa como unidades de análisis". Estudios Empresariales, 95 zk.
- ARANGUREN, M. J. (1998a): Creación de empresas. Factores determinantes. Industria de la CAPV. ESTE-Deustuko Unibertsitateak argitaratua, Donostia.
- ARANGUREN, M. J. (1998b): Dinamismo empresarial en la industria. Mimeo. Donostia.
- BUESA, M. eta MOLERO, J. (1998): Economía industrial en España. Civitas-ek argitaratua. Madril.
- MILLS, D. E. eta SCHUMANN, L. (1998): "Industry structure with fluctuating demand". American Economic Review, 75 b, 4 zk, 758-767 orr.
- NAVARRO, M., ARANGUREN, M. J. eta RIVERA, O. (1994): La crisis de la industria manufacturera en la CAPV. Aspectos estructurales. Manu Robles-Arangiz Institutuak argitaratua. Bilbo.
- NAVARRO, M. eta ARANGUREN, M. J. (1998): La industria manufacturera guipuzcoana. Gipuzkoako Merkataritzako Ganberarentzat eginiko ikerketa. Donostia.
- PIORE, M. J. Eta SABEL, C. F. (1990): La segunda ruptura industrial. Alianza Universidad, Madril.
- SENGENBERGER, W. Et al. (1990): The re-emergence of small enterprises. International Labour Organisation. Geneva.

1. Koadroa. BEGren eta enpleguaren banaketa ehunekotan sektoreka (1995)

	GIPUZKOA	EAE	ESPAINIA	EUROPA-15	EEBB	JAPONIA
"Nekazaritza, basogintza eta arrantza"	1.7	1.5	3.1	2.3	3	2
B Energiako produktuak	3.7	3	5.8	4.7	4	3
E Industriako produktuak	35.8	33.2	19.8	21.2	17	27
G Eraikuntza	6.3	7.3	8.7	5.4	10	11
Zerbitzuak	52.5	54.7	62.6	66.3	66	57
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
"Nekazaritza, basogintza eta arrantza"	3.5	3.1	8.33	5.46	3.1	8
N Energiako produktuak	0.4	0.6	0.94	1.21	0.9	0.7
P Industriako produktuak	30.5	27	19.81	21.47	18.6	24.8
L. Eraikuntza	6.2	7.6	8.89	5.69	6.4	11.5
Zerbitzuak	59.6	61.9	62.04	66.16	71	55
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

"Iturria: Eustat (EAE), Eurostat (Espainia eta Europa-15) eta ELGE (EEBB eta Japonia)"

2. Koadroa. Industriako BEG biztanleko (milakotan, 1995)

GIPUZKOA	6,2
EAE	5,8
ESPAINIA	3,4
EUROPA-15	5,5
EEBB	6,1
JAPONIA	6,1

Iturria *ELGE, INE, Eurostat eta Eustat *. Neronek landua

3. Koadroa: Manufakturako industriako enpleguaren bilakaera sektoreka ehunekotan

	1985	1990	1995	1997
METALEZKO OINARRIZKOAK	13,4	9,0	7,9	6,6
Metalezko mineralak	0,3	0,2	0,0	0,0
Siderurgia	11,7	7,7	6,8	5,6
Ez-burdinazko metalurgia	1,4	1,1	1,1	1,0
EZ-METALEZKO INDUSTRIA	3,3	3,6	3,9	3,8
Ez-metalezko mineralak	0,3	0,3	0,4	0,4
Zementuak	0,3	0,3	0,2	0,2
Beira	1,1	1,2	1,2	1,2
Bestelako ez-metalezkoak	1,6	1,8	2,0	2,0
KIMIKA	4,1	3,8	3,3	3,0
Oinarrizko kimika	1,0	0,7	0,8	0,7
Kimika industrialak	2,3	2,3	1,8	1,6
Azken kimika	0,7	0,8	0,8	0,7
METALEZKO ERAIKUNTZAK	11,4	12,4	13,2	13,6
Galdategiak	4,7	4,4	3,7	3,6
Forjaketa eta estanpazioa	3,3	3,5	3,8	4,0
Metalezko eraikuntza	3,3	4,4	5,7	6,0
METALEZKO ARTIKULUAK	13,7	14,1	13,4	14,4
Metalezko artikulua	13,7	14,1	13,4	14,4
MAKINERIA	12,1	12,6	11,5	11,5
Makina-tresnak	2,7	2,9	2,2	2,3
Bestelako makineria	8,6	9,1	8,6	8,5
Bulego makinak eta doitasunezkoak	0,8	0,6	0,7	0,8
MATERIAL ELEKTRIKOA	8,0	8,9	9,4	9,6
Etxetresna elektrikoak	2,6	2,9	2,7	2,8
Bestelako material elektrikoa	5,4	6,0	6,7	6,8
GARRAIO MATERIALA	8,4	7,8	8,3	9,0
Automobilak eta piezak	3,5	3,5	4,6	5,5
Ontzigitza	2,8	2,7	1,8	1,4
Bestelako garraio-materiala	2,0	1,7	1,9	2,1

3. Koadroa: Manufakturako industriako enpleguaren bilakaera sektoreka ehunekotan (jarraipena)

	1985	1990	1995	1997
JANARI-INDUSTRIAK	5,9	5,9	6,5	6,2
Harakintza	0,8	0,7	0,7	0,7
Esnekien industria	0,5	0,5	0,5	0,5
Arrain-kontserbak	0,6	0,7	0,8	1,0
Okintza eta errotaritza	1,6	1,9	2,2	2,1
Txokolatea	0,5	0,3	0,3	0,3
Bestelako janari-industriak	0,7	0,7	0,6	0,6
Edariak	1,2	1,1	1,3	1,2
EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	2,0	2,2	2,0	1,9
Ehungintza	1,0	0,7	0,6	0,6
Jantzigintza	0,7	1,1	1,2	1,1
Larrua eta oinetakoak	0,3	0,3	0,2	0,2
EGURRA ETA ALTZARIAK	4,1	5,1	6,2	6,5
Egurra	2,0	2,4	2,5	2,7
Zurezko altzariak	2,2	2,8	3,7	3,8
PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	5,4	5,5	5,9	5,7
Papera	2,9	2,5	2,5	2,4
Arte grafikoak	2,4	3,1	3,4	3,3
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	8,3	8,9	8,6	8,2
Kautxua eta pneumatikoak	5,2	4,7	4,6	4,2
Plastikozko artikulak	2,4	3,1	3,0	3,0
Bestelako manufakturak	0,6	1,2	1,0	1,0
MANUFATURAKO INDUSTRIA				
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustaten Industri kontuak eta neronek landua

Oharra: Eustatek 1990. urtean eginiko direktorioaren hobekuntzaren eragina kendu gabe

4. Koadroa: Establezimenduak eta enplegua manufakturako industrian tamainaren arabera

	ESTABLEZIMENDUAK				ENPLEGUA				ESTABLEZIMEN- DUKO ENPLEGUA			
	1985		1995		1985		1995		1985		1995	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
G	1.325	54,5	2.976	72,8	5.909	6,7	6.540	10,1	4,5	2,2	2,2	
I	445	18,3	547	13,4	6.116	6,9	7.367	11,4	13,7	13,5	13,5	
P	338	13,9	303	7,4	10.273	11,6	9.524	14,7	30,4	31,4	31,4	
U	140	5,8	148	3,6	9.922	11,2	9.945	15,3	70,9	67,2	67,2	
Z	155	6,4	104	2,5	30.960	35,1	21.675	33,4	199,7	208,4	208,4	
K	27	1,1	10	0,2	25.123	28,5	9.766	15,1	930,5	976,6	976,6	
O	2.430	100,0	4.088	100,0	88.303	100,0	64.817	100,0	36,3	15,9	15,9	
A												
	3.404	54,1	7.474	72,4	15.005	6,2	15.399	9,1	4,4	2,1	2,1	
	1.151	18,3	1.406	13,6	15.701	6,5	18.958	11,2	13,6	13,5	13,5	
E	883	14,0	770	7,5	27.019	11,1	24.133	14,2	30,6	31,3	31,3	
A	397	6,3	362	3,5	28.070	11,6	25.487	15,0	70,7	70,4	70,4	
E	395	6,3	280	2,7	80.050	33,0	56.759	33,5	202,7	202,7	202,7	
>499	64	1,0	26	0,3	76.494	31,6	28.826	17,0	1.195,2	1.108,7	1.108,7	
GUZTIRA	6.294	100,0	10.318	100,0	242.339	100,0	169.562	100,0	38,5	16,4	16,4	

Iturria: Eustat eta neronek landua.

Oharra: 1990eko Eustaten direktorioaren hobekuntzaren eragina kenduta

5. Koadroa: Manufakturako enpleguaren bilakaera EAEn (1985-97)

	ENPLEGUAK	URTEKO ALDAKETA
	230.132	
1985-86	224.120	-2,6%
1986-87	218.509	-2,5%
1987-88	218.286	-0,1%
1988-89	220.074	0,8%
1989-90	228.876	4,0%
1990-91	225.681	-1,4%
1991-92	218.217	-3,3%
1992-93	197.481	-9,5%
1993-94	186.043	-5,8%
1994-95	188.425	1,3%
1995-96	191.404	1,6%
1996-97	196.737	2,8%

Iturria: Eustat eta neronek landua

Oharra: Eustatek 1990. urtean eginiko direktorioaren hobekuntzaren eragina kendu gabe.

Tabakoaren sektorea kenduta.

6. Koadroa: 1985-1997 aldiko enplegu-aldaketa sektoreka

METALEZKO OINARRIZKOAK	-17.982
Metalezko mineralak	-724
Siderurgia	-16.002
Ez-burdinazko metalurgia	-1.256
EZ-METALEZKO INDUSTRIA	-33
Ez-metalezko mineralak	140
Zementuak	-270
Beira	-285
Bestelako ez-metalezkoak	382
KIMIKA	-3.574
Oinarrizko kimika	-1.039
Kimika industriala	-2.280
Azken kimika	-255
METALEZKO ERAIKUNTZAK	464
Galdategiak	-3.904
Forjaketa eta estanzazioa	335
Metalezko eraikuntza	4.033
METALEZKO ARTIKULUAK	-3.261
Metalezko artikulua	-3.261

6. Koadroa: Enplegua sektoreka eta tamaina desberdineko enpresetan EAEko industrian (jarraipena)

MAKINERIA	-5.154
Makina-tresnak	-1.796
Bestelako makineria	-2.917
Bulego-makinak eta doitasunezkoak	-441
MATERIAL ELEKTRIKOA	509
Etxetresna elektrikoak	-476
Bestelako material elektrikoak	985
GARRAIO MATERIALA	-1.561
Automobilak eta piezak	2.728
Ontzigitza	-3.746
Bestelako garraio-materiala	-543
JANARI-INDUSTRIAK	-1.192
Harakintza	-536
Esnekien industria	-269
Arrain-kontserbak	523
Okintza eta errotaritza	452
Txokolatea	-663
Bestelako janari-industriak	-374
Edariak	-325
EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	-832
Ehungintza	-1.188
Jantzigintza	555
Larrua eta oinetakoak	-199
EGURRA ETA ALTZARIAK	3.262
Egurra	751
Zurezko altzariak	2.511
PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	-1.133
Papera	-2.007
Arte grafikoak	874
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	-2.908
Kautxua eta pneumatikoak	-3.752
Plastikozko artikulua	329
Bestelako manufakturak	515
MANUFATURAKO INDUSTRIA GUZTIRA	-33.395

Iturria: Eustaten Industri kontuak eta neronek landua

7. Koadroa: Enpleguaren urteko aldiakuntza-tasa sektoreka

	1985-86	1986-87	1987-88	1988-89	1989-90	1990-91	1991-92	1992-93	1993-94	1994-95	1995-96	1996-97
METALEZKO OINARRIZKOAK	-7,2	-10,4	-6,6	-7,5	-6,0	-1,7	-7,9	-14,5	-5,1	-1,8	-7,2	-6,0
Metalezko mineralak	2,6	0,5	-2,5	-39,2	25,1	-28,1	-13,7	-43,6	-76,4	-93,5	100,0	0,0
Siderurgia	-7,8	-10,7	-7,3	-8,1	-5,4	-1,7	-6,3	-14,6	-4,3	-3,3	-8,2	-6,8
Ez-burdinazko metalurgia	-4,5	-10,2	-2,0	5,5	-14,8	4,2	-17,6	-9,4	-4,0	11,4	-1,6	-1,1
EZ-METALEZKO INDUSTRIA	-0,7	-1,1	1,4	2,1	7,9	6,1	-1,8	-11,4	-5,2	1,5	1,8	1,2
Ez-metalezko mineralak	0,3	-3,0	-2,6	8,6	19,4	9,5	-2,4	2,2	-5,5	-5,9	8,4	-5,4
Zementuak	-8,9	-6,7	-1,3	-6,6	3,2	-1,2	-2,1	-3,2	0,13,8	-3,5	-2,5	0,7
Beira	-1,0	2,4	1,7	0,6	3,5	1,9	-3,9	-6,3	-9,4	3,4	1,2	-0,7
Bestelako ez-metalezkoak	1,0	-2,2	2,3	3,5	9,7	11,9	-0,3	-17,7	-1,1	2,6	1,4	3,7
KIMIKA	-5,4	-3,7	-1,6	-0,6	4,2	-2,3	-3,5	-6,4	-9,5	-11,1	-2,2	-3,4
Oinarritzko kimika	-8,8	-5,0	-13,0	-5,5	0,4	3,5	-4,6	-11,9	-8,7	6,0	1,3	-7,1
Kimika industrialra	-4,6	-4,5	1,5	0,8	4,1	-2,5	-7,8	-6,3	-10,2	-14,2	-5,5	-3,1
Azken kimika	-3,3	0,7	3,4	0,3	8,1	-6,8	10,5	-1,9	-8,5	-17,1	2,0	-0,2
METALEZKO ERAIKUNTZAK	-2,4	0,3	-5,3	10,8	4,8	0,7	-4,8	-6,2	-4,3	1,9	3,2	4,2
Galdategiak	-3,7	1,4	-2,0	0,7	-5,8	-1,9	-10,8	-9,0	-6,1	-7,7	-3,1	2,8
Forjaketa eta estampazioa	1,0	-2,4	-1,8	8,2	1,4	2,8	-6,3	-3,3	-0,8	-4,4	6,7	5,2
Metalezko eraikuntza	-3,8	1,4	-13,4	30,1	20,0	1,6	2,0	-6,0	-5,6	14,7	5,0	4,3
METALEZKO ARTIKULUAK	-1,7	0,2	-0,6	-3,4	10,0	-3,3	-3,2	-8,9	-8,5	0,1	6,1	5,2
Metalezko artikulua	-1,7	0,2	-0,6	-3,4	10,0	-3,3	-3,2	-8,9	-8,5	0,1	6,1	5,2
MAKINERIA	-3,3	-4,3	7,7	-1,2	4,2	-3,6	-1,9	-14,1	-2,1	-5,9	3,0	2,1
Makina-tresnak	1,8	3,5	1,4	-7,1	6,3	-5,7	-7,1	-16,5	3,7	-18,3	3,7	4,7
Bestelako makineria	-4,6	-5,3	10,9	1,0	3,1	-3,1	-0,8	-13,4	-4,9	-2,1	2,8	1,4
Bulego-makinak eta dotasunezkoak	-6,0	-22,0	-1,8	-4,8	11,9	-1,6	3,8	-13,7	14,2	-5,9	3,6	2,5
MATERIAL ELEKTRIKOIA	-0,6	2,6	3,5	9,5	-5,3	-6,7	-1,6	-5,4	-9,2	11,0	1,6	4,7
Ebretresna elektrikoak	-6,5	5,0	4,2	19,6	-10,2	-4,5	-1,8	-8,6	-2,5	-10,4	-3,4	10,3
Bestelako material elektrikoa	2,3	1,5	3,1	4,8	-2,8	-7,7	-1,5	-3,8	-14,7	23,0	3,6	2,5
GARRAIO MATERIALA	-0,6	-4,1	1,3	-1,1	-2,6	-0,2	-7,1	-9,8	0,2	4,3	2,0	10,7
Automobilak eta piezak	-0,7	-1,0	2,4	-1,2	-1,4	-0,2	-5,8	-9,3	0,8	26,1	9,5	14,8
Ortizgintza	4,9	-6,3	6,8	-4,2	-6,6	-6,4	-8,2	-11,6	-6,6	-21,9	-15,6	-3,8
Bestelako garraio-materiala	-8,1	-6,4	-9,8	5,0	1,9	9,6	-8,0	-8,5	8,0	-5,0	0,7	11,5

	1985-86	1986-87	1987-88	1988-89	1989-90	1990-91	1991-92	1992-93	1993-94	1994-95	1995-96	1996-97
JANARI-INDUSTRIAK	-1,0	-1,2	1,4	-0,6	-0,7	-1,4	-0,6	-6,0	-2,5	0,6	-0,5	1,0
Harakinza	8,6	-2,5	-8,7	-16,8	-9,8	-0,2	-1,9	-11,1	-1,4	-8,1	1,0	2,0
Esnekin industria	-2,0	1,3	-1,7	4,3	-8,5	-5,8	0,5	-6,6	-3,2	6,2	-4,5	4,9
Arrain-kontseirbak	-7,2	4,4	8,7	13,1	1,3	3,8	5,4	-11,8	-6,5	4,3	8,0	10,8
Okintza eta errotoarntza	-0,9	2,5	7,4	3,5	4,3	2,2	0,0	-2,1	-5,3	3,1	-1,6	-0,4
Txokolateta	-11,1	-33,0	-2,5	-21,6	12,4	-4,8	-11,2	-2,5	9,0	-3,7	0,0	0,0
Bestelako janari-industriak	3,8	0,6	-0,6	-1,3	7,3	-4,2	-0,4	-18,0	-6,4	-2,3	-0,4	-2,5
Edariak	-2,7	2,8	0,8	0,7	-6,8	-7,4	-3,1	2,7	4,9	-0,7	-3,4	0,2
EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	-4,5	-2,8	-1,5	-1,3	25,0	2,8	-0,7	-7,6	-12,1	-9,7	-2,8	1,4
Ehungintza	-14,6	-6,8	-7,9	-6,1	6,6	0,8	-8,2	-11,1	-5,2	-13,5	-6,4	4,2
Jantzigintza	6,5	0,3	5,6	1,2	47,5	5,7	4,9	-6,3	-13,5	-7,2	-2,0	2,1
Larua eta oinetakoak	4,3	1,2	-2,3	3,9	8,8	-2,9	-4,2	-5,2	-21,2	-11,0	2,4	-7,8
EGURRA ETA ALTZARIAK	0,5	-0,7	0,6	6,4	16,0	-3,5	-0,7	-7,9	-11,6	27,8	4,6	4,3
Egurra	2,4	0,9	-0,9	8,2	9,0	-4,4	-0,3	-7,2	-9,2	8,3	7,6	3,6
Zurezko altzariak	-1,3	-2,2	2,1	4,7	22,6	-2,7	-1,0	-8,6	-13,8	45,4	2,6	4,8
PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	-4,2	-1,7	-1,5	0,4	10,1	0,8	-0,6	-7,3	-6,3	-0,1	0,0	1,6
Papera	-5,6	-3,8	-2,8	-4,2	0,9	-1,0	-6,4	-13,2	-3,6	4,6	0,4	1,7
Arte grafikoak	-2,6	0,6	-0,1	5,4	19,0	2,3	4,0	-3,1	-8,1	-3,2	-0,3	1,6
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	-0,6	-1,7	0,9	0,5	8,8	2,5	-3,2	-13,1	-6,2	-2,7	0,5	-0,6
Kautxua eta pneumatikoak	-2,3	-4,0	-1,7	-0,9	-1,2	-1,0	-5,9	-11,8	-0,2	-2,1	0,4	-5,6
Plastikozko artikulua	4,3	3,1	3,4	3,3	10,4	2,8	-0,8	-10,9	-8,7	-4,6	0,6	5,1
Bestelako enufakturak	-5,3	-1,8	11,1	-1,0	73,9	16,0	0,5	-22,3	-22,1	0,9	0,6	5,8
MANUFATURAKO INDUSTRIA												
GUZTIRA	-2,6	-2,5	-0,1	0,8	3,9	-1,4	-3,3	-9,5	-5,8	1,3	1,6	2,8

Iturria: Eustaten Industri kontuak eta neronek landua

8. Koadroa: Manufakturako industriako enpleguaren urteko aldakuntza-tasaren bilakaera taimainaren arabera

	1985-86	1986-87	1987-88	1988-89	1989-90	1990-91	1991-92	1992-93	1993-94	1994-95
1-9	8,2	8,0	7,7	7,5	50,8	3,6	5,1	-4,6	-14,0	3,9
10-19	1,7	0,1	4,8	4,3	8,3	6,1	3,5	1,3	-6,5	2,3
20-49	-1,2	3,0	1,5	1,3	4,7	-1,5	-3,9	-7,9	-0,7	-1,2
50-99	-0,1	-0,5	-1,1	4,0	1,5	-6,6	-0,7	-0,4	-1,5	-2,6
100-499	-0,8	-2,6	-1,1	-1,0	-2,5	-3,0	-0,1	-13,5	-6,3	3,1
>499	-9,7	-9,3	-3,1	-2,1	-7,4	-2,2	-17,9	-20,1	-3,0	-10,4
GUZTIRA	-2,6	-2,5	-0,1	0,9	3,9	-1,4	-3,3	-9,5	-5,8	-0,4

Iturria: Eustaten Industri Kontuak eta neronek landua.

Oharra: 1990ean Eustatek egimiko direktorioaren hobekuntzaren eragina kendu gabe.